





**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu. Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

**Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas. No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.**

**A AUKERA**

Erantzun 2 galdera hauei:

1. Katedral gotikoa, hiritar kulturaren eredu eta arte guztien uztarketaren adibide gisa. Arkitektura eta eskultura monumentala (2,5 puntu).
2. Espainiako pintura barrokoa: Diego de Velázquez (2,5 puntu).

Egin ezazu bi irudi hauen azterketa bat (2,5 puntu bakoitzak).

**OPCIÓN A**

Responde a estas 2 preguntas:

1. La catedral gótica como edificio emblemático de la sociedad urbana y ejemplo de integración de las artes. Arquitectura y escultura monumental (2,5 puntos).
  2. La pintura barroca en España: Diego de Velázquez (2,5 puntos).
- Analiza estas 2 imágenes: (2,5 puntos cada una).



**Diskoboloa. Miron / Mirón. El discóbolo.**



**Askatasuna herria gidatzen. Delacroix. La libertad guiando al pueblo.**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2016ko EKAINA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2016

HISTORIA DEL ARTE

### B AUKERA

Erantzun 2 galdera hauei:

1. Italiar arkitektura XV. mendean: ordena klasikoen berreskurapena eta hizkuntza formal berria. Brunelleschi eta Alberti (2,5 puntu).
2. Errealismoa: Kontzeptua eta testuingurua. Courbet-en pintura (2,5 puntu).

Egin ezazu bi irudi hauen azterketa bat (2,5 puntu bakoitzak).

### OPCIÓN B


Responde a estas 2 preguntas:

1. La arquitectura italiana en el siglo XV. La recuperación de los órdenes clásicos y el nuevo lenguaje formal. Brunelleschi y Alberti (2,5 puntos).
2. El Realismo. Concepto y contexto. La pintura de Courbet (2,5 puntos).

Analiza estas 2 imágenes: (2,5 puntos cada una).



**Maison Carrée**



**Oihua. Edvard Munch. El grito.**



## **ARTEAREN HISTORIA**

### ***Galderak ebaluatzeko irizpideak:***

1. Garai edo artista bakoitzak sortutako arte-adierazpenak bereizten ditu, eta haien estiloa, kronologia eta bilakaera ezartzen ditu. **(Puntu bat galdera bakoitzeko)**
2. Galderari erantzuteko, dagokion gaia hartzen du ardatz. Adierazpen argiak egiten ditu, errakuntzarik gabe eta terminologia artistikoa modu egokian erabiltzen du. **(0,75 puntu galdera bakoitzeko)**
3. Galderak dituen alde guztiei erantzuten die: forma- eta estilo-ezaugarriak, aurrekariak eta geroko eraginak. Eta balioesten ditu beren lanetan planteamendu berriak garatu dituzten edo bide artistiko berriak ireki dituzten artistak eta obrak. **(0,50 puntu galdera bakoitzeko)**
4. Estilo eta mugimendu artistikoak, adierazpen artistikoak edo artista jakin baten obrak beren inguruko faktore ideologiko, ekonomiko, politiko, kultural eta sozialekin lotzen ditu. **(0,25 puntu galdera bakoitzeko)**

### ***Irudiei buruzko iruzkinak ebaluatzeko irizpideak:***

1. Artelana edo artista dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin kokatzen du, eta dituen ezaugarri propioak bereizten ditu **(0,75 puntu irudi bakoitzeko)**..
2. Proposatutako obra edo artisten alderdi tekniko, formal edo esanguratsuenak aztertzen ditu. **(0,75 puntu irudi bakoitzeko)**..
3. Adierazpen argiak egiten ditu, terminologia artistikoa modu egokian erabiliz eta errakuntzarik gabe. **(0,50 puntu irudi bakoitzeko)**
4. Garai bateko lan eta artista garrantzitsuenak haien aurreko edo ondorengo aldikoekin lotzen ditu **(0,25 puntu irudi bakoitzeko)**
5. Artelanak eta artistak beren testuinguruko faktore ideologiko, kultural, erlijioso, politiko-sozial eta ekonomikoekin lotzen ditu **(0,25 puntu irudi bakoitzeko)**